



## GURPILAK

Eztizen Artola Iturrate

2024  
IRAILA

Autoa, haurra, bidaia. Zenbat falta da? Nola azaldu distantzia ume gosetu, nekatu, urduri bati. Nola neurtu denbora? Zenbat abesti, zenbat urtebetetze, zenbat herri-izen kabitzen dira espetxealdi batean? Kartzelara bisitan joatea ohitura baino gehiago bizimolde duen haur bat, gero nerabe, gero gazte. Eta kartzelan baizik ikusten ez duen aita. Xalotasunetik abiatzen da liburu honetako narratzailea, berak aukeratu ez duen matazan puska puska bidea aurkitu nahian. Mansilla de las Mulas. Daroca. Aranjuez. Etxea. Ezin ulertuak, gaizki ulertuak eta ulertu nahi ezak. Etxe izandako kartzela nola bihurtzen den badena. Errepide bazterreko jatetxeak eta harrapaketan jolastea. Etxea!

Ume motxiladun baten bizipenak jaso ditu Eztizen Artolak bere aurreneko nobelan. Denboran luzatutako sakabanaketan murgildu, eta orain arte literaturan kontatu gabeko espazio bati hitzak jarri.

### NARRATIBA

ISBN: **978-84-10246-12-6**  
ORRIALDEAK: **200 or.**  
FORMATUA: **12 x 19**  
PREZIOA: **16,00€**

### ELEBERRIA

- Idazle bilbotarraren lehen nobela honetan, haur motxiladunen bizipenak jasotzen dira, euskal literaturan lehen eskutik aurrenekoz.
- Haur protagonistaren ahotsean jasotzen du irakurleak kontakizuna, eta xalotasun horrek ez du narrazioa indartu baizik egiten.



### EZTIZEN ARTOLA ITURRATE

(Bilbo, 1999)

Eztizen Artola Iturrate (Bilbo, 1999). Haur Hezkuntzan graduatua da, herri mugimenduan dabil, eta Gurpilak du aurreneko liburua. Lehen eskutik bizi izan du haur motxiladunen egoera.

#### Idazlearen aipu bat:

“Motxiladun haurren bizitzak kremailera barruan gordeta daude, lotsaz, intimitatean. Horregatik, ariketa kolektiboa egiteko ere baliatu dugu liburua. Nire bizipen propioak jasotzen ditu, bai eta inguruko motxiladun haurrenak ere, baina horrekin fikzioa egin nahi izan dut, eleberri hau.”



9 788410 246126

**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus